

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure ideia edo proiektua geure funtsezko elkarreei saltzeko orduan ere garrantzi handikoa da aurreikustea geure proiekturako zein baliabide erabiliko ditugun. Baliabide horiek abian jartzeko geure ezintasuna bera da funtsezko elkarre horietarako lan egiteko gure proposamenaren arrazoi nagusietako bat, baina aldi berean, funtsezko baliabide horiek ondo zehaztuta eramateak emango digu sinesgarritasuna balizko gure Funtsezko elkarreen aurrean (CAF eta INDAR).

Hona bada, gure negozio-ereduak ondo funtziona dezan beharrezkoak izango ditugun aktibo nagusiak:

- Tren geltokia,
- Tren garajea
- Asmakizun hau egiteko behar diren tresna guztiak.
- Hau dena abian jartzeko iturri-ekonomikoak.
- Geure lan-taldekoak ez diren langileak

Lehenik trenak esperimentatu eta aztertzeko tren geltoki bat behar beharrezkoa litzateke. Bertan asmakizuna zehazteko ideia eta planoak zehazteko erabiliko genuke. Horretaz gain, asmakizuna aurrera eramatea iritsiko balitz eta bukatzeko faltako litzatekeen bakarra, funtzionatzen duena jakitea bazen, tren geltokian egingo zen proba.

Bigarrenik, tren geltoki bertan trenari eskua sartzeko toki espezifiko bat behar da. Trenari horrelako proiektu konplikatu eratzeko trenaren azpia erraz modifikatzea beharrezkoa da. Hori gutxi balitz, trenaren goiko zatira ere sarrera izatea ez litzateke gaizki etorriko, kabina barrutik lan proiektu honetan zaila izango zela jakinda.

Azkenik, bi lantoki hauek edukita lan egiteko tresna eta piezak eskura edukitzea falta da. Gainera sekzio honetan beste pertsona batzuen laguntza ere kontuan hartuko da. Honetan aditu eta lizentziatuen laguntza beharrezkoa da trenari arazorik ez egiteko eta proiektua aurrera eramaten laguntzeko.

Inolaz ere, horrelako proiektuak ahalbidetzen dituen errekurtsio nagusia dirua da eta proiektu honekin dirua irabazi aurretik inbertsio izugarria beharrezkoa da.